

Lege-oharra

1. Webgune honen titularraren nortasuna.

Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea betez, jakinarazten dizugu <http://bizieuskotren.com> webgunearen titularrak Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoa dela:

Helbidea:

Atxuri, 6
48006 Bilbo
Bizkaia
Telefonoa: 944 019 900
Faxa: 944 019 901

Helbide elektronikoa:

bizi@bizieuskotren.com

2. Webgune honen erabilera-baldintza orokorrak.

Webgune honen sarbideak "Erabiltzaile" izaera emango dizu webgunera sartzen zaren unean, betiere <http://bizieuskotren.com> webgunean argitaratutako baldintza orokorrak esanbidez eta zalantzarik gabe onartuta. Hortaz, Erabiltzaileak erabilera-baldintza orokor hauek irakurri beharko ditu, webgune honen bitartez eskaintzen diren zerbitzuetara sartzeko eta, hala badagokio, erabiltzeko asmoa duen bakoitzean, izan ere baldintza horiek aldatu baitaitezke.

2.1. Xedea eta aplikazio-eremua

Erabilera-baldintza orokor hauek <http://bizieuskotren.com> webgunearen sarbidea, nabigazioa eta erabilera arautzen dute, baita horren edukiak erabiltzetik ondorioztatutako erantzukizunak ere. Edukiak honako hauek izan daitezke: testuak, grafikoak, marrazkiak, diseinuak, kodeak, softwareak, argazkiak, musika, bideoak, soinuak, datu-baseak, irudiak, adierazpenak eta informazioak, eta baita jabetza intelektualari eta industrialari buruzko estatuko legeen eta nazioarteko itunen babespeko beste edozein sormen ere.

2.2. Zerbitzuak baliatu eta erabiltzeko baldintzak

a/ Une oro, Erabiltzaileak bidezko moduan erabili beharko ditu webgune honetako zerbitzuak, baldintza orokor hauen eta Interneten oro har onartutako praktiken arabera.

b/ Erabiltzaileak bermatu egingo du webgune honetan gaineratutako agirien bitartez emandako informazio guztia bidezkoa, errealia, zehatza, egiazkoa eta eguneratua dela. Emandako informazioan izan daitekeen edozein aldaketaren berri Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoari berehala emateko erantzukizuna Erabiltzaileak izango du bakarrik.

c/ Erabiltzaileak ez ditu honako hauek egingo: birusak, programak, makroak edo edozein karaktere-segida gaineratzea webgune honen sistema informatikoa kaltetu edo aldatzeko; beste erabiltzeen sarrera oztopatzea baliabideak gehiegi kontsumituz; webgune honetan barne hartutako datuak hartzea publizitate-helburuarekin; webgune

honetan barne hartutako edukiak erreproduzitzea, kopiatzea, banatzea, aldatzea edo besteen esku jartzea; webgune honetan barne hartutako zerbitzuen bitartez, jabetza intelektuala, eta besteen ohorerako, irudi pertsonalerako eta intimitaterako eskubideak kaltetu ditzaketen ekintzak gauzatzea; bidegabeko lehia eta publizitatea.

3. Jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak.

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoa <http://bizieuskotren.com> osatzen duten elementu guztien jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideen titularra da, horren marka, merkataritza-izena edo zeinu bereizlea barnean hartuta. Zehazki eta mugatzeko asmorik gabe, egile-eskubideen babespean daude honako hauek: diseinu grafikoa, iturburu-kodea, logoak, testuak, grafikoak, irudiak, argazkiak, soinuak eta webgune honetako gainerako elementuak.

Nolanahi ere, <http://bizieuskotren.com> webgunera sartzeak edo bertan nabigatzeak ez du inplikitzen Erabiltzaileari bere jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak ukatzea, eskuordetzea edo erabilera pertsonalerako Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoaren erabateko lizentzia edo lizentzia partziala ematea.

Horregatik, Erabiltzaileak aitortzen du honako hauek jabetza intelektualeko edota industrialeko bere eskubideak urratzen dituztela: Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoaren idazki bidezko esanbidezko baimenik gabe, <http://bizieuskotren.com> webguneko eduki guztia edo horren zati bat erreproduzitzeak, kopiatzeak, banatzeak, merkaturatzeak, aldatzeak, berrerabiltzeak, jendaurrean jakinarazteak eta, oro har, edozein prozeduraren bidez ustiatzeak.

4. Erantzukizunen eta bermeen erregimena.

4.1. Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoak, bere aukeren barruan eta teknologiaren egoera kontuan hartuta, webgunearen funtzionamendu egokia eta birusik edota osagai kaltegarririk ez egotea ahalbidetzen duten neurri teknikoak eta antolamenduzkoak hartu dituela adierazten du; hala ere, ezin du honako hauen gaineko erantzukizuna izan:

- (a) <http://bizieuskotren.com> webguneko edukien eta zerbitzuen iraunkortasuna eta erabilgarritasuna;
- (b) eduki horietan akatsik ez egotea eta gerta daitekeen edozein akatsen zuzenketa;
- (a) <http://bizieuskotren.com> webgunean birusik edota beste edozein osagai kaltegarririk ez egotea;
- (d) hartu diren segurtasun-neurrien menderaezintasuna;
- (e) <http://bizieuskotren.com> webgunearen segurtasun-sistemak urratzen dituen edozein pertsonak eragindako kalteak.

4.2. Erabiltzailea izango da hirugarrenen aurrean erantzule bakarra honako kasu hauetan: <http://bizieuskotren.com> webgunera pertsonalki edo bere izenean bidalitako edozein jakinarazpen, eta webgune honetako edukien eta zerbitzuen bidegabeko erabilera.

4.3. Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoak eskubidea izango du mantentze-lanak egiteko, konpontzeko, eguneratzeko edo hobetzeko asmoz <http://bizieuskotren.com> webgunerako sarrera aldi baterako eta alde zuzeneko abisurik gabe eteteko. Zirkunstantziak aukera ematen baldin badute, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoak behar adina

aurrerapenarekin bere webgunean abisu bat argitaratuko du, zerbitzuak eteteko aurreikusitako data adieraziz.

4.4. <http://bizieuskotren.com> webgunean beste webguneetarako loturak egon daitezke, baina Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoak horien gaineko kontrolik ez duenez, ez du horiekiko erantzukizunik izango. Lotura horien helburu bakarra Erabiltzaileei beste informazio-iturri batzuk daudela jakinaraztea da, eta, beraz, Erabiltzaileak izango du erantzukizun guztia webgune horien edukietara sartzen denean, eta horiek arautzen dituzten baldintzen eraginpean egongo da.

4.5. Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoak ez du erantzukizunik izango Erabiltzaileek webgune horietako edukiak eta zerbitzuak erabiltzeari dagokionez. Hortaz, sozietateak ez du bermatzen Erabiltzaileak eduki eta zerbitzu horiek erabiltzerakoan hemen adierazten diren erabilera-baldintza orokorrean egokitzea, eta ezta zuhurtziaz erabiltzea ere.

5. Iraupena eta aldatzea.

5.1. Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoak eskubidea izango du erabilera-baldintza orokor hauek guztiz edo partzialki aldatzeko, eta <http://bizieuskotren.com> webgunean argitaratu beharko ditu aldaketak. Era berean, eskubidea izango du bere webgunean bidezko zat hartzen dituen aldaketak aldeztatik jakinarazi gabe egiteko, eta webgunearen bitartez ematen dituen edukiak eta zerbitzuak aldatu, ezabatu edo gehitu ahal izango ditu, baita horiek aurkezteko edo kokatzeko modua ere. Horren ondorioz, indarrean daudela ulertzen da Erabiltzailea <http://bizieuskotren.com> webgunera sartzen den unean argitaratuak dauden baldintza orokorrak, eta, beraz, Erabiltzaileak aldizka irakurri beharko ditu erabilera-baldintza horiek.

5.2. Baldintza berezietan xedatutakoa alde batera utzita, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoak edozein unetan eta aldeztatik abisatu beharrik gabe amaitu, eten edo moztu ahal izango du webguneko edukietarako sarrera, eta Erabiltzaileak ezin izango du kalte-ordainik eskatu.

6. Aplikatuko den legedia eta jurisdikzio-eskumena.

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoaren eta Erabiltzailearen artean ezarritako harremanak aplika daitekeen legediari eta jurisdikzio-eskumenari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira. Hala ere, araudiak alderdiak foru baten eraginpean jartzeko aukera dutela aurreikusten duen kasuei dagokienez, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. sozietate publikoa eta Erabiltzailea Bilboko hiriaren Epaitegien eta Auzitegien eraginpean jarriko dira, legokiekeen beste edozein foru esanbidez ukatuz.